

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak proposatu du hipoteken zerga bankuek eta kutxek ordaintzea

Foru-legearen proiektua Parlamentura bidali dute, zuzenean izapidetzeko eta irakurketa bakarrean egiteko, behin onartuta ahalik eta azkarren aplikatzearen

Asteazkena, 2018.eko azaroak 14

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran Foru Legearen proiektu bat onartu du; hau da, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zati bat aldatzen duena (129/1999 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 26koa), "aldaketa jurisdikzional eta arau-mailako aldaketa azeleratuek eragindako urduritasun eta zalantza izugarriaren egoerari" amaiera emate aldera, zerga horren estatu-bertsioa horren mende egon baita.

Foru Exekutiboak proposaturiko aldaketak kasu batzuetan subjektu pasiboa aldatzen du; alegia, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzeko betebeharra duena. Erregulazio berriaren arabera, betebeharrak hori finantza-erakundeena da "mailegua bermearekin eratzeko eskrituren kasuan". Idazketak finantza-erakunde guztiak berdin-berdin hartzen ditu, nahiz eta esan zergadun-mota batzuentzako maileguak salbuetsita jarraitu behar dutela.

Horrez gain, Foru Legearen proiektuak xedapen bat gehitu du finantza-erakundeek EJD Zerga ordaintzeko betebeharra deduzitza ez dezaten Sozietateen gaineko Zergaren aitortzearen etorkizuneko ekitaldietan, 2019. urtetik hasita.

Azkenik, Nafarroako Gobernuaren ustez, aldaketa honek "Nafarroako Parlamentuaren erregelamenduko 158. artikuluko baldintzak betetzen ditu; hots, proiektuen zuzeneko izapidea eta irakurketa bakarrekoa arautzen duena". Modu horretan, arauaren segurtasun juridiko handiena bermatzen da, izapidetzea azkartzearekin batera, behin Foru Legearen proiektua onartuta, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera indarrean sar dadin.